

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **160/2022 Foru Agindua, apirilaren 21ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeko eta egiteko laguntzen programaren 2022ko deialdiari eta kreditu erreserbari**

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaien Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileei.

Dekretu horren 5. artikuluan xedatzen da urtero laguntza deialdia onetsiko dela, zeinean eskaerak aurkezteko epea jasoko baita, bai eta deialdia ebazteko gordetzen den kreditua eta diruz lagun daitezkeen azokak egiteko aldia ere.

Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan badago kreditua laguntza hauen 2022rako deialdia onesteko.

COVID-19ak sortutako osasun krisiak eragotzi egin du 2020an merkatuak eta azokak egitea, eta murriztu egin ditu 2021ean egiteko aukerak. Halaber, agerian utzi du zein garrantzitsua den merkaturatze zirkuitu laburrak eta gertuko ekoizpenak sustatzea, zeinak funtsezkoak baitira elikadura burujabetza lortzeko eta kalitatezko elikagaien hornidura bermatzeko. Tokiko merkatuek eta azokek helburu hori lortzen laguntzen dute eta, horregatik, funtsezkoa da haiek babestea.

Azaldutako guztiagatik, proposatzen da onestea nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzen 2022ko deialdia, bat etorri nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren.

Nahitaezko txostenak aztertu dira. Horien ondorioz, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau:

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzen 2022ko deialdia, bat etorri nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren. Hona hemen xehetasunak:

a) Eskaerak aurkezteko lekua eta epea: eskaerak Nekazaritza Sailaren web orrian eskura egongo den inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira, dagokion foru agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 25 egun balioduneko epean, toki hauetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoen berriazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/pr-ayudas-para-la-organizacion-de-ferias-agricolas-y-ganaderas-1>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

b) Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko partida hauen kontura, eta adierazitako zenbatekoak:

40.1.00. G/419400/462.90.400, Udalak eta toki erakundeak nekazari-abeltzain azokak: 10.000,00 euro.

40.100. G/419400/481.00.421, Nekazaritza eta abeltzaintza azokak. Ekoizleen elkarteak: 7.000,00 euro.

Aurreko taldeetako bakoitzari dagozkion dirulaguntzak zehaztu eta gero, bi partiden arteko kreditu banaketa aldatu ahal izango da, baina deialdiaren kreditu orokorrean eragin gabe.

Diruz lagun daitezkeen azokak egiteko aldia: 2021. urtean egindako azokek heldu ahal izango diote deialdi honi, eta, beraz, eskaera eta agiri osagarriak benetan gertatutako gertakarien inguruabarrei eta gastuei buruzkoak izango dira. Laguntzak eman eta berehala egingo da ordainketa, eta ezinbesteko baldintza izango da oinarri arautzaileetan adierazitako agiri guztiak aurkeztu izana.

Bigarrena. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2022ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan). Zenbateko hori 1.000,00 euro da.

Lehenago adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 21a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**  
*Nekazaritza zuzendaria*  
**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**